



<b>IKASTETXEA</b>	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
<b>Arloa/ Irakasgaia</b>	<b>INGELESA</b>	Zikloa / Maila	DBH 4
<b>Irakasleak</b>	<b>Montse Aierdi, Arantzazu Latorre, Sonia Serrano</b>	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren diskurtso mintzatu eta idatziak (ikaslearegandik hurbil dauden eremuei lotuta, hau da, familia, ingurua, eskola, telebista, irratia, prentsa etab) ulertzea eta, pertsona bakoitzaren, gizartearen edo eskolaren xedeei erantzuteko, horiek interpretatzea.</li><li>• Ahoz eta idatziz behar besteko autonomiaz adierazteko gaitasuna izatea, ohiko komunikazio-egoeretan sortzen diren premiei behar bezala, koherentziaz eta zuzen erantzuteko, betiere ikasleari buruzkoak badira edo bere esperientzia pertsonalei lotuta badaude.</li><li>• Ulermen- eta sorkuntza-prozedurei dagokienez, atzerriko hizkuntzaren sistemari buruz hausnartzea; horrez gainera, hizkuntzari buruzko ezagutzak eta hizkuntzaren erabilera-arauek gero eta autonomia gehiagor aplikatuko dira, eta hizkuntzen artean transferi daitezkeen ezagutzak eraginkortasunez erabiliko dira, norberaren sorkuntzak hobetzeko.</li><li>• Gizarte-komunikazio baliabideak eta informazio eta komunikazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea, atzerriko hizkuntzan informazioa lortzeko, komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko.</li><li>• Norberaren ikaskuntzari buruz hausnartuz, edozein hizkuntzatan jasotako ezagutzak eta estrategiak gainerakoak ikasteko erabiltzea.</li></ul>	<p>Ea komunikabideetako edo eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzen duten, eta horietan aurkitu ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak nahiz tesi eta argumentuak ulertzen duten.</p> <p>Ea hainbat eremutako testu idatzien esanahia interpretatzen, eta horien esanahi orokorra nahiz horietan aurkitu daitezkeen datu zehatzak hautematen eta ondorioztatzen duten.</p> <p>Ea jarduera akademikoarekin lotutako gai ezagunei buruz ahozko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egiten duten; horiek aurrez prestatu beharko dira, eta, gainera, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango dira.</p> <p>Ea ikasteko eta gizarte-harremanak bultzatzeko eskola barruan egiten diren ahozko elkarrekintzetan parte-hartze aktiboa eta egokia izaten duten, eta lankidetzarako jarrera positiboa agertzen duten.</p> <p>Ea planifikatu ondoren, hainbat generotako eta erabilera-eremutako testuak autonomia apur batez sortu eta komunikazio-egoerara egokitzen duten; horretarako, koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- eta aberastasun-printzipioak kontuan hartuko dira.</p> <p>Ea komunikazio-egoeraren eta bertan esku-hartzen duten pertsonen arabera erregistroan (formala edo informala) argitasunez eta kortesia-arauek errespetatzen dituzten.</p> <p>Ea hizkuntzen sistema- eta erabilera-arauei buruz hausnartzen duten, testuak, enuntziatuak eta hitzak alderatuz eta aldatuz, eta ezagutza horiek ulermen-arazoak konpontzeko nahiz testuak autonomiaz idazteko eta berrikusteko baliatzen diren.</p>



Ea informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz erabiltzen duten, informazioa bilatzeko, hautatzeko, prozesatzeko eta komunikatzeko; ereduetan oinarrituta testuak sortzeko; posta elektronikoko mezuak bidaltzeko eta jasotzeko; eta harreman pertsonalak (ahozkoak nahiz idatziak) egiteko.

## EDUKIEN SEKUENTZIA (denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1. ebaluazioa
  - a) Unit 1: Caught on camera: descriptions
  - b) Unit 2: Looking back: Narrating past events.
2. ebaluazioa
  - a) Unit 3: A good job: agreeing and disagreeing
  - b) Unit 4: The human body: discussing lifestyles
3. ebaluazioa
  - a) Unit 5: Tomorrow´s world: speculating and predicting
  - b) Unit 6: Mystery: reporting events.

## METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

- Metodoa komunikatibo eta aktiboa izango da, ikaslea da bere ikaste-prozesuaren protagonista, irakasleak bidea erakutsiko diolarik.
- Hizkuntza idatzia eta ahozkoaren presentziaren oreka mantentzen saiatuko gara.
- Informazio teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiliko dira, informazioa bilatuz, hautatuz eta prozesatuz, hau dena eskolako jarduerak dituen beharrei erantzuteko.

### BALIABIDEAK:

- Testu liburua: *Solutions* – intermediate (Oxford University Press)
- Material osagarria
- Ikus-entzunezko materiala: bideoak, filmeak, ...
- Material multimedia eta digitala: liburu digitala
- Internet: webquest, treasure hunt. Hona hemen maiz erabilitako webgune zerrenda:
  - [www.listenaminute.com](http://www.listenaminute.com)
  - [www.randall's.com](http://www.randall's.com)
  - [www.lessonstream.org](http://www.lessonstream.org)
  - [www.breakingnews.com](http://www.breakingnews.com)
  - [www.ed.ted.com](http://www.ed.ted.com)
  - [www.learnenglishkids.com](http://www.learnenglishkids.com)
  - [www.learnenglishteens.com](http://www.learnenglishteens.com)
  - [www.eslcomando.com](http://www.eslcomando.com)
  - [www.youtube.com](http://www.youtube.com)
  - [www.teachingenglish.org.uk](http://www.teachingenglish.org.uk)
- Beste batzuk



- Irakurgaiak: bi nobela (egokituak) irakurriko dituzte kurtsoan zehar:
  - *Lord Arthur Savile's Crimes*, Oscar Wilde. Black Cat, Vicens-Vives
  - *The Secret Diary of Adrian Mole*, Sue Townsend, Burlington Activity Reader

## EBALUAZIO TRESNAK [ahozko eta idatzizko

probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]

- Gramatika probak
- Hiztegi probak
- Entzumen probak
- Ahozko probak
- Irakurtze probak
- Idazte probak
- Klaseko behaketa
- Lan pertsonala

## KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

- Gramatika eta hiztegia: %30
- Ahozko hizkuntza-trebetasunak (listening and speaking): %20
- Idatzizko hizkuntza-trebetasunak (reading and writing): %30
- Ikasten ikasiz, klaseko lana: %20

## EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak,

antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]

Ebaluazio jarraia da, errefortzurako lan pertsonala emango zaie suspenditzen duten ikasleei, baina berreskurapen azterketarik ez da egingo; hurrengo ebaluazioa gainditzean berreskuratuko dute.

Ikasleek kurtsoan zehar egindako lana ebaluazio jarraian gainditu ezean, ez-ohiko azterketa egingo dute. Ez-ohiko deialdia soilik nahikotasun azterketa izanik, ikasleen lan pertsonala, lankidetzak, autonomia eta ahozko gaitasunak ez dira ebaluatuko. Hots, kalifikazio irizpideak honako hauek izango dira:

- Gramatika eta hiztegia: % 50
- Idatzizko trebetasunak (\*reading and writing): %50

## OHARRAK

Aurten hizkuntza laguntzailerik ezean eta bikoizketaren aukerarik ez egotean ahozko komunikazioa indartzea oso zaila suertatzen zaigu. Ezinbestekotzat dugu atzeritar hizkuntza bat lantzeko baliabide gehiago izatea.